EGK Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean Bizkaiko astialdi taldeen mapa berria aterako du aurrera.

- **Mapa betetzeko epea urriaren 17tik azaroaren 20ra izango da.**
- **EGK-k funtsezkotzat jotzen du astialdian haur eta nerabeekin batera prozesu hezitzaileak sortzeko, komunitatearen garapenerako, hezkidetzarako eta/edo euskara eta euskal kultura sustatzeko egiten den ahalegina ikusaraztea**

Bilbo, 2023ko urrriaren 17a. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK), Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan, lurraldeko astialdi taldeen argazkia berritu nahi du. Helburu honekin, astialdi taldeen mapa sortu egingo da, horretarako, taldeen laguntza ezinbestekoa da, astialdiko mugimendua bere osotasunean jasotzea bilatzen baita.

Galdetegia betez edozein aidialdi talde parte har dezake mapan. Oinarrizko datuak eskatuuko dira: taldearen izena, jarduerak garatzen diren udalerria edota auzoa eta mapa sortzeko prozesuan sor daitezkeen zalantzak argitzeko kontaktua (azken datu hau ez da argitaratuko).

Galdetegia betetzeko epea: **azaroaren 20a.**

Informazio gehiago gure webguneko albistean aurkitu dezakezu edo bestela deitu ezazu **747442774/944436143** telefonoetara edo idatzi **astialdi@egk.eus** emailera.

Informazio gehiago
komunika@egk.eus
6888675932 (Mirene)